# BESTELAKO XEDAPENAK

## HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

## 572

*EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 30ekoa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, zeinen bidez jendaurrean jartzen baita hizkuntza-titulu eta –ziurtagirien eta hizkuntzetarako Europako erreferentzia esparru bateratuko mailen arteko baliokidetasuna EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze– eta hornitze-prozesuetarako ezartzeko den Dekretuaren proiektua.*

Herri Administrazio eta Justizia Sailak honako proiektu hau prestatu du: hizkuntza-titulu eta –ziurtagirien eta hizkuntzetarako Europako erreferentzia esparru bateratuko mailen arteko baliokidetasuna EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze– eta hornitze-prozesuetarako ezartzeko den Dekretuaren proiektua. Proiektu hau Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu behar da.

Horregatik, legezko erregulazio hori betetzeko, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak eman zituen, batetik, 2015eko urtarrilaren 9ko Agindua, zeinen bidez hasiera eman baitzitzaion proiektua prestatu eta izapidetzeko prozesuari, eta, bestetik, 2015eko urtarrilaren 15eko Agindua, aurretik proiektu hori onartzekoa.

8/2003 Lege horren 8.1 artikuluarekin bat etorriz, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Erregulazioak Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei eragingo die, hizkuntza-titulu eta –ziurtagirien eta hizkuntzetarako Europako erreferentzia esparru bateratuko mailen arteko baliokidetasuna ezartzen baitu, EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze– eta hornitze-prozesuetan hizkuntzen ezaguera egiaztatzearen ondorioetarako.

Hori dela-eta, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluarekin bat etorriz, aipatutako proiektua jendaurrean jartzen da, eta, horretarako, presazko izapidetzearen arabera, hamar egun balioduneko epea ezartzen da; epe hori iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Azaldutakoagatik, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 4.c) eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea, hamar egun balioduneko epean, hizkuntza-titulu eta –ziurtagirien eta hizkuntzetarako Europako erreferentzia esparru bateratuko mailen arteko baliokidetasuna EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze– eta hornitze-prozesuetarako ezartzeko den Dekretuaren proiektua. Epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasiko da.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Herri Administrazio eta Justizia Saileko Funtzio Publikoko Sailburuordetzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, www.euskadi.eus web orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 30a.

Funtzio Publikoko sailburuordea,
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA.